

Ipuin hau irakurri eta ulertu ostean azpian agertzen diren galderak erantzun

LAMIA ETA HARRI PAKATZAILEA

Aspaldi-aspaldian, hargin bat bizi zen Zuberoko herrixka batean. Bere lana beharrezkoa zen eta onetsia herritarren artean. Hala ere, hargina ez zegoen konforme, zeren eta, berak zioenez, oso lantegi gogor eta neketsua zuen.

Garai hartan lamia ugari zegoen Euskal Herrian. Haietako batek gizonaren kexak entzun eta aurrera azaldu zitzaion.

-Zer gertatzen zaizu? Ez al zaude pozik?

-Ba, harria pikatze hau oso neketsua da eta apenas bizitzeko ere ematen duen. Ez ote naiz inoiz aberastuko!

-Hori nahi baduzu, -esan zion lamiak- aberatsa izango zara, bada!

Eta lamiak aberats egin zuen.

Hasieran, harginari ametsetan ari zela iruditu zitzaion baina berehala ohitu zen! Nahiko dirua, etxe ederra, morroiak... izatea benetan atsegina zen! Baina, denboraldi baten ondoren, aspertu egin zen bere egoera berriaz.

-Orain aberatsa naiz, egia -pentsatu zuen-, baina ez naiz ahaltsua.

Lamia berriro agertu zitzaion.

-Eta orain zertaz kexatzen zara?

-Beno, bada... zera... aberatsa naiz eta hori ondo dago baina naizen baino ahaltzuagoa izatea gustatuko litzaidake... Oxala enperadore banintz!

Eta lamiak enperadore egin zuen.

Hargina kontentu zegoen! Enperadore zen! Nahi zuen guztia zeukan eta denak bere esanetara zeuden.

Uda iritsi zen eta bero izugarria egin zuen. Enperadoreak ezin zuen txoko freskorik aurkitu jauregi osoan.

-Egia esan -zioen bere buruari- eguzkiak enperadoreari kalte egin badiezaioke ahaltzuagoa delako izango da, oxala eguzkia banintz!

Lamia han inguruan zegoen eta dena entzun zuen. Eguzki bihurtu zuen!

Hargina pozik zegoen eguzki izatearekin, baina, halako batean, hodeitxo bat aurrean jarri zitzaion eta estali egin zuen. Gizon aberats-enperadore-eguzkiak zera pentsatu zuen, hodeitxo batek estal bazezakeen, hau ahaltzuago zela. Hodei izateko gogoia sartu zitzaion.

Eta lamiak hodei bihurtu zuen.

Hargina zorutzen zegoen bere egoera berrian. Hodei izatea oso atsegina zen, tximistak eta euria jaurtiki zitezkeen lurrera, jende guztia busti zezakeen eta bakoitza bere etxean sarrarazi. Bat-batean haitz bat ikusi zuen, zaparradari lasai eusten zion eta haitza ahaltzuagoa zela pentsatu zuen, hodeiak ezin baitzion ezer egin. Haitz bihurtzea nahi izan zuen.

Eta lamiak haitz bihurtu zuen.

Baina haitz egin zenetik laster mailukada batzuk sumatu zituen bera joka. Mila zatitan puskatu zuten eta, orduan, oihu egin zuen:

-Hargina da ahaltzuena, haitza mila zatitan apur baitezake! Ai, hargina banintz!

Eta lamiak hargin bihurtu zuen berriro. Gero, esan zion:

-Gauza bat zarenean bestea izan nahi duzu! Hara bada... hasieran bezalaxe zaude! Hemendik aurrera hobe izango dugu bakoitzak berean jarraitzea: ni lamia eta zu hargina.

Eta lamia desagertu egin zen eta harginari ez zitzaion beste inoiz azaldu.

Iturria: Euskal leiendak, Erein

a.Ipuinak zein garairi egiten dio erreferentzia?

b.Zenbat pertsonaia agertzen dira? Nortzuk dira?

c.Nor za narratzailea?

d.Zein toki agertzen dira? Tokiak benetakoak dira ala imaginarioak?